

Iruñeko Zapatagileen eta Putzu Zuriaren kaleen bidegurutzean eseri naiz atsedean hartzera, bide luzeegia egin ondoren. Berez, ez nuen luzatzeko asmorik.

Zapata dendetako batean sartu behar nuen, apurtutako oinetakoak ordezkatzera. Iluntze- ar da. Eseri, eta tarte batez begiratu dut jendea ondotik pasatzen. Denboraren nozioa galdu dut. Geldiune teknikoak zena beste zerba it bihurtzen ari da. Ohar- tzen naiz orduak eman nitzakeela hor. Jendeari begira, oinezkoen eza- xolak nolabait babestu- ta. Agian, putzu zaharra egondako toki zehatza- ren gainean jarrita, lotura telurikoa sortu dut hiria- ren arimarekin. Agian, besterik gabe, zahartzen ari naiz, eta hau dator- kidanaren atarikoak baino ez da. Azken ideia honek ikara eragin dit. Ezagunen batek hor geldirik ikus- teko aukerak lotsarazten dit, baina ez naiz zutitza delibateratzen. Aitzakiaren baten bila edo, pentsatu dut euskaraldia erabil nezakeela hurrengo batean. *Ahobizi* izan behar banu ere, hemen eserita egokiagoa iruditzen zait *Belarriprest*-aren rola hartuta, konfesatoki batean bezala, neure burua eskaintzea aitot- pen guztietara goizetik gauera arte. *la performance* batean bezala. Silvia R. urrutitik ikusi dut. Altxatu, agurtu, eta Basoco zapata den- dan sartu naiz.



JIRA
Angel Erro

ren gainean jarrita, lotura telurikoa sortu dut hiria- ren arimarekin. Agian, besterik gabe, zahartzen ari naiz, eta hau dator- kidanaren atarikoak baino ez da. Azken ideia honek ikara eragin dit. Ezagunen batek hor geldirik ikus- teko aukerak lotsarazten dit, baina ez naiz zutitza delibateratzen. Aitzakiaren baten bila edo, pentsatu dut euskaraldia erabil nezakeela hurrengo batean. *Ahobizi* izan behar banu ere, hemen eserita egokiagoa iruditzen zait *Belarriprest*-aren rola hartuta, konfesatoki batean bezala, neure burua eskaintzea aitot- pen guztietara goizetik gauera arte. *la performance* batean bezala. Silvia R. urrutitik ikusi dut. Altxatu, agurtu, eta Basoco zapata den- dan sartu naiz.

Ez

Ez beti da ezetz. Ezetz esaten ez daki- gulako esaten dugu bai. Ezetz esate- arren umeak ez zaitu gutxiago mai- teko. Gaur ez baduzu nahi ere, bihar nahi baduzu, posible izan daiteke. Ez daukat gogorik. Hau ez da momentua. Ni ez nago prest. Ez dut halakorik erabaki. Ez nago ziur. Ez, horrela ez. Ezetz esan nizun lehen aldiz proposatu zenidanean ere. Ez da egia zalantza erakutsi nizunik. Ez daukat apuntatuta. Ni ez naiz akordatzten. Hau ez da telefonoz esan zeni- dana. Ez dator nire prin- tzipioekin bat. Esan nizun meztarra ez nuela sartu nahi. Ez dago nire esku. Ez daukazu eskubiderik hori eskatzeko. Ez, nik ez nizun agian baietz esan. Zarena izateak ez ditu honetarako biderik eman. Ez zenidan esan bazkari- tan hasi aurretik ere kantatu egin behar zenik. Ez, postura horretan ez. Ez badut nahi, ez dut beti azalpenik eman behar. Ez, ez nago hilero- koarekin. Ez dut hainbeste denbora libre. Ez, ez dut berriro entzun nahi ez zaidala kosta- tzen.



BIRA
Onintza Enbeita

Etala hala ere, gehienetan baietz esaten dugu. Etala hala ere, zerba it hausten zaigu ezetz esaten dugun aldiro. Etala hala ere, gaizki sentiarazten gaitu ezetz esateak. Etala hala ere, ezetz esaten dugun aldi bakanetan inori inporta behar ez litzazkikeen gauzak esplikatzan ditugu. Etala askotan besteak dira arrazoi horien balioa era- bakitzan dutenak.

Etala hala ere, gehienetan baietz esaten dugu. Etala hala ere, zerba it hausten zaigu ezetz esaten dugun aldiro. Etala hala ere, gaizki sentiarazten gaitu ezetz esateak. Etala hala ere, ezetz esaten dugun aldi bakanetan inori inporta behar ez litzazkikeen gauzak esplikatzan ditugu. Etala askotan besteak dira arrazoi horien balioa era- bakitzan dutenak.

Jon M. Landa
EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrako zuzendaria

Polizia-abusuen le- gearen harira, as- paldi honetan po- lemika areagotu egin da, indarkeria politikoaren bikti- ma norizan daitekeen eta batez ere atzean dauden egitate- kriminalak nork argitu ditzakeenaren inguruan. Giza eskubideen bortxaketa larriaz ari gara, duda barik: tortura, epaiketaz kanpoko hilketak, sexu- delituak, me- hatxuak, lesio larriak... eta horiek guz- tiak poliziek egindakoak edota talde terroristak edo norbanakoez, baina betiere polizien laguntzarekin, poli- zien mesedetan, poliziak jakinaren gainean egonik, poliziek beste alde ba- tera begiratu, edo egindakoaren zi- gorrak eza bermatuz. Euskal Herrian denok dakigu Estatuaren segurtasun- indarrek zelakoak egin zituzten 1978ko Konstituzioa onartu aurretik, bai eta onartu ondoren hori guztia ez zela eten ere. Baina kontua da gizarte- an dabilen egia hori nola bilaka liteke- en ofizial, nola eman dakiokkeen ze- haztasuna. Izan ere, biktima indibi- duelek jakin badakite- eta zer gertatu zitzaizen. Biktima horien aurka deli- tuak eta urraketak egin zituztenek ere dakiten moduan. Kontua bada gizar- teak ere jakin behar duela, eta horre- tarako komeni da horri guztia bere egia- ren neurria jartzea, errealtatea ukatu edo puztu egiten dutenen alde- ra, gertatu zen bezala -ahal den neu- rrian- denok jakin dezagun.

Galdera da, hortaz, nola sortu «egia», nori dagokion Estatu demo- kratiko batean giza- eskubideen urra- keta horie buruzko egia azaltzea he- rri- plazan. Horren aurrean ba- tzuek -horien artean, ozenki, polizia sindikatu batzuek- diote epaileek ba- karrik aldarrikatu ahal dutela egia ho- ri. Zigor- epaileak besterik ezin ei du finkatu delitu bat dagoenez. Hortik kanpo ezin da. Horregatik, bai Nafa- rroako bai Euskadiko biktimen legeak konstituzioaren aurkakoak omen di- ra. Eta epaileen lana Espainiako Bote- re zentralaren eskuetan ehuneko ehun dagoenez gero, Autonomia Erki- degoek ezingo lukete horretan inolaz ere eskua sartu.

Aurreko planteamenduaren atzean ukazio- jarrera ezkatzen da. Esta- tuak egindako Estatuak estali du ha- markadatan. Haiek egin, haiek estali eta haiek ukatzea izan da ildo nagusia, bai 1978ko Konstituzioaren aurretik, bai ondoren. Beti erabiltzen den leloa bada epaileek esango dutela, eta ezer esaten ez dutenez ez dagoela ezer: ki- tto. Nabaria da, ordea, epaileek beste aldera begiratu dutela. Zer egin isila- tzen- horma horren aurrean? Nola ga- inditu Estatuaren jarrera oztota- tzaile aktiboa? Horren aurreko eran- tzuna zera izan da behintzat Nafarroa- ko eta Euskadi Autonomia Elkargoen esparrutan: eman diezaiegun biktimei kalte- ordaina, eta, horren bitartez, ai- tor ditzagun beraien sufrimendu eta injustiziak herri- plazan. Biktimei be- gira, azal dezagun egia hori, denon au- rrean, justiziaren izenean eta bakea -ez mendekua- egiteko asmoz; adiskidetzearren -ez delitugileak zi- gortzearen- bila. Lege baten bitartez, azalaraz dezagun biktimen egia, he- rri- egia bilaka dadin, horrek injustizia arinduko duelakoan. Epaileen lana ordezkatu nahi zela esatea ez da zuzena. Helburua ez baitzen inori lepora- tzea gertatu zena. Izan ere, horretara- ko, noski, prozesu penalarren bermeak behar baitira. Baina aipatu ahalagin estrategikoa gorabehera, PPK inpu- gnatu zituen legeak. Arrazoa al du?

Egiarako eskubidea Justiziaren zati bat da, kalte- ordainak ematea justizia zati bat izan daitekeen moduan. Baina justizia penala zerba it espezifikoa da: erantzukina ezartzea, egilea zigor- tzeko. Justizia penalak bai epaileen es- kuetan egon behar duela, inori ezertaz akusatatu aurretik, zigor- bermeak be- har baititu. Epaileen lana ezinbesteko bilakatzen duena ez da egitate krimi- nalak ikertzea, baizik eta ikerketa hori erantzukizunak eta zigorrak ezartzea bideratzea. Arazoa ez da ikertzea, zer- tarako egitea baizik. Ikus ditzagun adibide argi batzuk.

Historialariek, antropologoez, auzi- medikuek edo legelariek, besteak bes- te, unibertsitatean beraien ikerketa zientifikoari ekiten diotenean, giza- eskubideen urraketak aztertzen di- tuzte eta, haien lanetan, «egia» azala- razten dute. Eta ez dira epaileak.

Kazetariak askotan egitate- krimi- nalak aztertzen dituzte eta gero argita- ratzen dute, akuilu- lana eginez, ho- rren segidan epaile penalek beraien lana egin dezaten. Eta kazetariak ez dira epaileak. Antzeko zerba it gerta-

tzen da legebiltzarretan ikerketa ba- tzordeak sortzen direnean erantzuki- zun politikoak argitzeko; erantzuki- zun penalak beste gauza bat dira.

Administrazioak askotan biktimei ordaina eman behar die, eta, horretara- ko, lehenik eta behin, ezarri behar du zer gertatu zen, zein zen biktima, zein lotura zegoen gertatutako kaltea- ren eta biktimaren artean. Hori egin da eta egiten da, behin eta berriro, (ETAREN) terrorismoaren biktimekin. Askotan, epai penalik gabe ere, terro- rismo- ekintza bat gertatutatzat jotzen da eta horren oinarrian kalte- ordaina ematen da. Kasuotan ez da jakiten nork egin zuen atentua, ezta zer ger- tatu zen ikuspegi juridiko- penaletik. Baina egiarako ariketa aurrera erama- ta da administrazioaren ekimenez - epaileek parte hartu gabe alegia- eta hori biktimari sufrimendua arintzeko

Eta hau terrorismo kasuetan ez ezik, nazioarteko legerian askotan (trenen, hegazkinen edo antzeko istripuen kasu- etan esaterako) galdatzen da: ba- tzorde teknikoek ezartzen dute, admi- nistrazio mailan -ez epaileen bitartez- zer gertatu zen, biktimei berea arine- ketan eman ahal izateko.

Areago: batzuetan delitu larria egon arren, argi eta garbi, justizia penalak ezin du jardun, amnistia edo preskrip- zioa badagoelako. Ezin da kasuotan erantzulea pertsegitu, baina biktimak hori daude, eta atentiditu behar dira. Delituok oso- oso larriak direnean, gu- re kasuan Giza eskubideen Nazioarte- ko Zuzenbideak agintzen du atentiditu egin behar direla, egia atera behar dela eta Espainiako Estatuak, giza eskubi- deen hitzarmenak izenpetu dituenez gero, horri bidea eman beharko lioke.

Torturan, epaiketetz kanpoko exe- kuzioetan, sexu- delitutan, polizia- gehiegikerian argitu daitezke nor den erudun batetik, eta nortzuk diren biktimak bestetik. Omena biak batera argitzea. Baina Estatuak, Espainiako botere zentralak, ez du nahi. Horrega- tik, botere autonomikoak ekimena hartu du, eta, ezer ezaren aurrean, si- kiera biktimen egia aitortzea erabaki du, kalte- konponketa horretarako la- nabesa izanik. Horregatik, Auzitegi Konstituzionalak duela gutxi bikti- men Nafarroako legea konstituzioa- ren aurkako zela aldarrikatu duene- an, ez du arrazoiak. Erromatar zaha- rrek zituen moduan:

Konstituzionalak *potestas* (boterea) eduki dezake, ez, ordea, *auctoritas* (autoritatea)!